

FRANCISCA DE ACULODI

Sariaren VI Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren VI. Edizioaren —2018/2019 ikasturtea— Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko 13 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak sariak honako bi lan hauetara ematea erabaki du:

Euskaraz:

ISN'T IT ROMANTIC FILMEKO PERTSONAIEN ANALISIA BEGIRADA POSFEMINISTATIK

Gaztelaniaz:

FACTORES MODERADORES DEL BIENESTAR SUBJETIVO DE LESBIANAS, GAIS Y BISEXUALES (LGB) EN LA CAPV

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiak 2020ko otsailaren 14a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-vi-edizioa> web orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

Lide Larrañaga Cazalis

Publizitateko eta Harreman Publikoetako gradua (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea)

Tutorea: Matxalen Legarreta Iza

ISN'T IT ROMANTIC FILMEKO PERTSONAIEN ANALISIA BEGIRADA POSFEMINISTATIK

LABURPENA:

Feminismoa eta genero ezberdintasunak pil-pilean dauden garai batean, saihetsezina egiten zait ingurura begiratu eta egoera, praktika eta gustu pertsonalak zalantzan jartzea. Gure burua feministatzat dugun arren, askotan gure usteen kontra doazen egoeretan aurkitzen dugu geure burua. Normaltzat ditugun egoerak dira hauek, izan ere, sistema heteropatriarkal batean bizi gara eta txiki-txikitatik ikasitako jarrerak ditugu, aldatzen zailak askotan; nik betidanik maite izan ditut komedia erromantikoak eta nire etxean ere askotan ikusi izan ditugu. Ikusten errazak dira, barregarriak eta topikoz beteak, "eroso" bezala kalifikatuko nituzkenak. Ikusleari ez diote ahaleginik eskatzen, istorioaz jakin beharrekoa besterik ez da ematen eta askotan ikusleak berak aurreikusi dezake zer gertatuko den.

Ez da izan nolabaiteko heldutasunera heldu eta feminismoaren inguruan trebatzen hasi naizen arte pelikulok ematen dituzten mezuen inguruan gogoeta egiten hasi naizela. Izan ere, unibertsitateko ikasketetan pelikulak eta haien atzean ezkututzen diren esanahi eta mezuak aztertzen hasi ginenean konturatu nintzen, niretzat istorio polit edo barregarri bat besterik ez zenaren atzean ideologia bat, zentzu bikoitzeko mezu bat edo ideia baten erreprodukzioa egon litekela. Batzuk begi bistakoak dira, genero estereotipo tipikoenak kasu, baina beste batzuk kamuflatuta agertzen dira eta asko, teoria filmiko desberdinak ezagutu ezean, ez ditugu antzematen. Angyalen (2012:13 paragrafoa) hitzetan: "*Romcomek* bizitzako gauza garrantzitsuenetariko batzuei buruzko ideiak ematen dizkigute: maitasuna, lana, adiskidetasuna, sexua, genero rola. Eta idea horietako batzuk kezkatzeko moduko sexistak eta atzerakoiak dira". Gainera, ikus-entzuleari oharkabean pasatzen zaizkio egoera matxista asko, hainbeste errepikatzen diren egoerak direnez, normaltzat hartzen direlako askotan (Aybar Tornero, 2014).

Zinema entretinemendua da gizakiontzat, bai, baina hori baino gehiago ere bada, gure kulturaren ispilu eta eragilea da aldi berean eta botere sozializatzaile handia du (Morales Romo, 2017). Hefner eta Wilsonen (2013), komedia erromantikoen inguruan egindako ikerketa batean, mota honetako pelikulen kontsumoak ikus-entzuleen uste erromantikoen 1. Horrela definitzen du sozializazioa Andréu Abelak (2003:244): "(...) kultura eta zehazki balio eta portaera sozialak gizarteko partaideei transmititzeko prozesua, hauen bidez, kultura belaunaldiz belaunaldi

transmitituz doa eta banakakoek ezagutza zehatzak ikasten dituzte, bizitza sozialean partehartze egokia izateko beharrezko potentzialtasun eta gaitasunak garatzen dituzte eta gizarte jakin batean berezko portaera forma antolatuetara egokitzen dira."onespena ekartzen duela ondorioztatzen dute, batez ere bikotekidearen idealizazioari dagokionez. Gainera, Pascual Fernandezek (2016) gure gizarte indibidualista eta kapitalistan, modu orokor batean eta maitasunaren inguruan batez ere, modu patriarkal argi batean hezten gaituztela baieztatzen du. Hau guztia kontuan hartuta, obra zinematografikoetan ikusten ditugun genero-errepresentazioek gure ideengan eragina dutela baieztatu dezakegu. Lan honetan, 2019ko komedia erromantiko baten genero-rolak aztertu nahi izan ditugu, feminismoa argitasun berri bat bizitzen ari den garai hauetan (Gill, 2016) genero zinematografikoak izan duen moldaeraren jakinminak bultzatuta. Gillen (2016) ustez, garrantzitsua da feminismo mota desberdinen artean bereiztea eta bakoitzak kultura mediatikoan duen gauzatzeari erreparatzea, feminismoaren ikusgaitasun honen inguruan gogoeta egiteko. Netflix plataformaren booma ikusita, bertan estreinatutako pelikula bat aukeratu dugu, *Isn't It Romantic* hain zuzen, komedia erromantikoa eta aldi berean honen satira dena.

Gaztelaniaz eginiko lanaren irabazlea:

Estibaliz Ceba Rodriguez

Gizarte Hezkuntza (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea)

Tutorea: Juan Etxeberria Murgiondo

FACTORES MODERADORES DEL BIENESTAR SUBJETIVO DE LESBIANAS, GAIS Y BISEXUALES (LGB) EN LA CAPV

LABURPENA:

Tras reparar en los efectos psicopatológicos que las actitudes homofóbicas de la sociedad heteronormativa causa en lesbianas, gais y bisexuales (LGB), la literatura considera necesario identificar y conocer los factores internos y externos que tienen un papel protector para promover la salud y bienestar de las minorías sexuales. El presente trabajo recoge una descripción y caracterización de la situación psicosocial de una muestra de personas LGB de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El objetivo principal ha sido describir y conocer aspectos relacionados con el BS en personas LGB que pueden tener influencia significativa en su desarrollo. Igualmente, se ha querido contrastar la idoneidad del método y modelo utilizado para una futura investigación científica en relación a esta temática.

Se trata de un estudio piloto empírico, exploratorio, descriptivo, comparativo y correlacional en el que a través de la técnica de bola de nieve han participado 95 personas. Para la recogida de datos se ha utilizado un cuestionario de 60 ítems de formato Likert (1-5). En el mismo, se han realizado análisis descriptivos univariantes, análisis de las relaciones bivariantes -coeficientes de correlación y de contingencia- y comparaciones entre medias. Entre los resultados más destacados, es importante señalar que existe relación entre la satisfacción vital, la afectividad positiva, el apoyo social y la integración de la identidad LGB. Así mismo, se contrasta la relación inversa de dichos factores psicológicos con la incertidumbre y preocupación con respecto a la identidad. Además, el estudio ha evidenciado que la edad es un factor importante en el desarrollo de estas variables psicológicas y que existe una relación inversa entre la identidad y la edad; dato que podría ligarse a los actuales movimientos sociales. No se observan grandes diferencias por sexo u orientación sexual, salvo que son los chicos gais quienes mayor incertidumbre y preocupación presentan. Mientras que tener pareja formal, vivir en un entorno urbano, contar con la titulación de estudios universitarios superiores y un trabajo remunerado parecen ser factores que mejoran los niveles psicológicos y reducen la incertidumbre y preocupación en relación a la identidad sexual, probablemente debido a la seguridad y conocimientos brindamos por la experiencia vital, la estabilidad personal como laboral y la presencia de fuertes redes de apoyo. Así, es reseñable también que los resultados invitan a pensar que la herramienta utilizada es apropiada para una futura investigación.